

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ELGOIBARKO UDALA

Praktiketako funtzionario izendapena

Alkatearen 2022ko abenduaren 15eko Ebazpenaren bitartez, Elgoibarko Udaleko administrazio orokorreko teknikaria (kontratazioa) plaza bat merezimendu-lehiaketaren bidez hornitzeko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak eta espezifikoko onetsi ziren (2022ko abenduaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 246 zk.).

2023ko martxoaren 7an *Estatuko Aldizkari Ofizialean* deialdiaren laburpena argitaratu zen, eskabideak aurkezteko epea zabalduz.

Merezimenduen balorazioa amaituta, Epaimahai Kalifikatzaileak Alkateari aurkeztu zion prozesuan puntuazio altuena lortu zuen izangaiaren izena, eta administrazio orokorreko teknikari (kontratazioa) plazan funtzionario izaera eskuratzeko proposamena.

Hala, proposamen horri jarraikiz eta deialdiaren oinarrietan ezarritako izapideak egin ondoren, Alkateak hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda onetsi zuen, eta hogeiguneko epea eman zion hautatutako pertsonari, parte hartzeko baldintzak betetzen zituela egiazta zezan.

Horretarako emandako epean, hautatutako pertsonak parte hartzeko baldintzak betetzen dituela egiaztatu zuen.

Hori guztia kontuan hartuta, hautaketa prozesua arautzen duten oinarriak eta horietako lehenengo oinarrian jasotako araudia kontuan hartuta, Alkateak 2024ko martxoaren 14an emandako 414 zenbakidun Ebazpenaren bidez,

ERABAKI DU

Lehenengoa. José Antonio Gómez izendatzea Elgoibarko Udaleko praktiketako funtzionario, administrazio orokorreko eskalako goi-mailako teknikari (A1) plaza bat, merezimendu lehiaketa bidez betetzeko.

Bigarrena. Erabaki honek eragina izango du lanpostua jabetzan hartzen denetik aurrera, erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabete epearen barruan egin beharko dena.

Proposatutako hautagaia aldi baterako ezintasun-egoeran badago, lanpostuaz jabetzeko epea etenda geratuko da, eta egoera hori amaitzen den egunean hasiko da kontaktzen.

Hirugarrena. Oinarri orokorren 16. artikuluan jasotakoaren arabera, 6 hilabetezako praktikaldia abiatzea; aipatu epea praktiketako funtzionario gisa jabetze akta sinatzen den unetik aurrera zenbatuko da. Aldi hori amaitutakoan, horretarako izendatutako ebaluazio-batzordeak txostena egingo du, eta bertan berariaz adierazi beharko du hautagaia praktikaldia gainditu duen.

Laugarrena. Izendatutako funtzionarioa indarrean dagoen Lanpostu Zerrendako Kontratazioko A.O.T lanpostura (211 kodea) atxikitzea, lanpostu horri esleitutako ezaugarriekin.

AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR

Nombramiento de funcionario en prácticas

Por resolución de Alcaldía de 15 de diciembre de 2022, se aprobaron las bases generales y específicas de la convocatoria del proceso selectivo para la provisión, mediante concurso de méritos, de una plaza de técnico/a de administración general (contratación) del Ayuntamiento de Elgoibar (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 246, de 29 de diciembre de 2022).

El 7 de marzo de 2023 se publicó en el *Boletín Oficial del Estado* un resumen de la convocatoria, abriendo el plazo de presentación de solicitudes.

Finalizada la valoración de méritos, el Tribunal Calificador elevó a la Alcaldesa su propuesta de acceso como funcionario a una plaza técnico de administración general (contratación) de la persona aspirante con mayor puntuación.

De acuerdo con dicha propuesta, y tras efectuar los trámites establecidos en las bases de la convocatoria, la Alcaldesa aprobó la relación definitiva de personas seleccionadas y concedió un plazo de veinte días para acreditar el cumplimiento de los requisitos de participación a la persona seleccionada.

Dentro del plazo otorgado al efecto, la persona seleccionada acreditó cumplir los requisitos de participación.

En base a todo ello, teniendo en cuenta las bases que rigen el proceso selectivo y la normativa recogida en la base primera de las mismas, mediante Resolución n.º 414 de fecha 14 de marzo de 2024, la Alcaldesa

HA RESUELTO

Primero. Nombrar a José Antonio Gómez Garrido funcionario en prácticas del Ayuntamiento de Elgoibar para ocupar una plaza de técnico superior (A1) de la escala de administración general.

Segundo. La presente Resolución surtirá efectos a partir de la toma de posesión, que deberá realizarse en el plazo de un mes desde el día siguiente a la publicación de este acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

En el caso de que el candidato propuesto se encuentre en situación de incapacidad temporal, el plazo para la toma de posesión quedará suspendido, y el computo comenzará el día en que finalice dicha situación.

Tercero. Iniciar un periodo de prácticas de 6 meses, según lo previsto en el artículo 16 de las bases generales, a contar desde la firma del acta de toma de posesión como funcionario en prácticas. Finalizado este periodo, el comité de evaluación designado al efecto emitirá informe en el que se hará constar expresamente la superación del periodo de prácticas.

Cuarto. Adscribir al funcionario designado al puesto de Técnico/a de Contratación (código 211) de la Relación de Puestos de Trabajo en vigor, con las características asignadas a dicho puesto.

Bosgarrena. Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, eta Elgoibarko Udaleko web orriko iragarki taulan argitaratzea.

Akordio hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hala, ebazpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, horren aurkako birjarpenerrek aurkeztu ahal izango zaio, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoari berari; edo bestela, ebazpen hori zuzenean aurkaratu ahal izango da, 2 hilabeteko epean, Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian. Nolanahi ere, egokitzat jotzen den beste edozein errekurso aurkeztu ahal izango da.

Elgoibar, 2024ko martxoaren 18a.—Maialen Gurrutxaga Uranga, alkatea. (2018)

Quinto. Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios de la página web del Ayuntamiento de Elgoibar.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa pudiendo, a partir del día siguiente a su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, interponerse contra el mismo recurso de reposición ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes, o impugnarse directamente, en el plazo de 2 meses, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime conveniente.

Elgoibar, a 18 de marzo de 2024.—La alcaldesa, Maialen Gurrutxaga Uranga. (2018)